


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 igo ziren 2005eko apirilean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko apirila, 2004ko apirilarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak % 5,9 gehitu ziren.

2005eko apirilean, EUSTATEN datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,2 igo zen aurreko hilaren aldean, eta apirilako urte arteko tasa % 5,9a iritsi zen.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*) Hazkundera apirilako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko apirilean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean % 0,2 igo zen Eraikuntza eta % 0,3 Obra Zibileko lehengaien kostuak. Urte arteko bilakaerak ere antzekoak izan zituzten azpisektore biek: Eraikuntzako lehengaien kostuak % 6,9 igo ziren eta Obra zibilekoak % 6,7.

Apirilean prezio hazkunderik handienak besteak beste, kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *leherkariak eta gasak* (% 6,3), *asfalto-produktuak* (% 3,7), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (% 3,4), *petroliotik eratorriak* (% 3,2) eta *burdindegiko tresneria* (% 2,0) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan

zituzten *energia elektrikoa* (% -7,8), *egiturak eta galdaragintza* (% -1,0), *plastikozko hoditeria*. *Isolatzailer termikoak* (% -0,7) eta *burdina eta altzairua* (% -0,5) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *asfalto-produktuak* (% 24,9), *metalezko hoditeria* (% 24,3), *petroliotik eratorritakoak* (% 24,2) eta *burdina eta altzairua* (% 21,0) lehengaiek. Bestalde, urteko arteko prezioetan (2005eko apirila, 2004ko apirilaren aldean), murrizketak izan zituzten *beira* (% -3,9), *energia elektrikoa* (% -1,7) eta *bulego-materiala* (% -1,5) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005eko APIRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	119,1	0,2	5,9	3,4	
ERAIKINAK	119,1	0,2	6,0	3,3	
OBRA ZIBILA	119,4	0,2	5,7	3,6	
LEHENGAIEN KOSTUA	116,4	0,2	6,8	3,1	
ERAIKINAK	116,5	0,2	6,9	3,0	
OBRA ZIBILA	116,2	0,3	6,7	3,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	125,4	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp